

## ASKAPEN-TEOLOGIA EUSKAL HERRIAN

*El trabajo publicado en Herria 2000 Eliza por Félix Placer Ugarte bajo el título "Posibilidad y tareas para una Teología de la Liberación en Euskal Herria", en el número correspondiente al mes de Septiembre '85 va a tener continuación. El autor quería que se iniciara un debate y parece que va a ser escuchada su voz. De momento publicamos estos dos trabajos recibidos en nuestra redacción, también de dos de nuestros colaboradores: Paulo Agirrebaltzategi, en euskara, completa un tanto la bibliografía de Placer con referencias a importantes trabajos publicados ya en la década de los 70 en "Jaunaren Deia", "Anaitasuna" y "Goiz Argi" y a continuación sugiere algunas ideas para incorporar correctamente a esa teología los conceptos de "pueblo", "Kultura" y "lengua".*

*El artículo de Guillermo Mujika, en castellano, se publicará en el número del mes de Diciembre.*

Joan zen ikasturtea -eta lanurtea- amaitzean, Felix Placer Ugartek egin-kizun handi bat ipini zigun aurrean Euskal Herriko kristauoi, eta bereziki Elizaren barruan teologizako zerbitzua egitera nolabait beharturik gaudenoi. Honela zuen titulua, aldizkari honen ekaineko zenbakian argitaraturiko artikulua: "Posibilidad y tareas para una teología de la liberación en Euskal Herria". Ikasturte -eta lanurte- berriari ekitean, ezin muzin egin Felix adiskideak egindako deiari. Eginkizuna dugu.

Euskaraz doaz nere gogoeta hauek: nik neuk horixe dudalako neure hizkuntza, betetik, eta, bestetik, "teologi lekua" eta teologile ordebidezko ("sujeto de referencia teológica") Euskal Herria dudalako hemen; Herri honek jasaten duen zapalkuntzaren oinarrian dago, ordea, ezarri zaion hizkuntz ordezpena -euskararen aurka-, eta aurrera daraman askapen-bidean eragilerik funtsezkoenetakoa euskararen bereskura-

pena du. Bi arrisku ditut. euskararen aukera hau egitean: bata, elkarrizketa zailtzea, oharrak egin nahi dizkiotan artikulua gaztelaniaz dagoenez, eta hor erabiltzen diren hitzen eta euskaraz erabiliko ditudan artean erabateko parekidetasunik ez dagoelako (este baterako, "pueblo" eta "herria" hitzen artean); bestea, inor gutxi irakurtzea eta ezguztea artikulua hau, euskaraz dagoelako, hain zuzen ere, bestela merezi ala ez merezi. Felixek berak behintzat irakurri ahal izango duela jakiteak lasaitzen nau neurri batez. Baina adierazgarria da Felixek berak ere euskarazko idazlan bat bakarra aipatu izana, bere artikulua- ren azkenean ematen duen bibliogra- fian.

Eragozpen, arrisku eta guzti, euskararen aukera egina dut; eta askapen-teologiaz mintzatzean, aukera horrek adierazgarritasun sakonagoa hartzen duela uste dut. Izan ere, euskararen galbidea da Herri honen zapalkuntza eta arrozke- ta (alienazio) historikoaren adierazgarri-

rik nabarmenenetakoa, eta horren berreskurapena da Herri honen askapena- ren eragilerik behinenetakoa.

### Orain dela hamar urte

Bibliografiarena aipatu dudanez, orain dela hamar urte gai honen inguru- ruan hasitako gogoeta eta eztabaidaren berri ekarri nahi dut hona. Kontzilioa amaitu zenetik hogeit hamar urte igaro badira aurtan, oso jakingarri litzateke Euskal Herriko kristauon gorabeheren hurbile- ko historia hori edikitzea aurrean.

1975eko abenduko zenbakian (53 zenbakian) agertu zuen **Jaunaren Deia** aldizkariak neure idazlan luze bat, 70 bat orrialdekoak, "Sozialismoaren aldeko kristauak" izenpean. CPS edo SAK mugimenduaren jokabideen eta pentsaeraren analisisa da batez ere, historia apur, batekin. Bereziki Euskal Herrian indar nahiko handia lortua zuen mugimenduaren jokabide eta pen- tsaera aztertu ziren bertan.

Parterik nagusia, berriz, **SAken teologia**: Askapen teologia izenarekin eman zen : 30 bat orrialde. Idazlanaren azken bi orrialdeetan Euskal Herriko SAKen teologiaren berri ere eman zen lan hartan.

Ordutik hona Askapen-teologia askozaz hobeto ezagutzeko eta aztertzeo aukera izan dugu; baita horrelako egin-kizuna gure artean nolako izan behar duen zeharteko ere. Azken gai honi buruz Felix Placer-ek dakarkigun gogoeta sistematikoa benetan funtsezkoa eta garrantzizkoa dela uste dut. Bertan aztertzen ditu, hain zuzen, askapen-teologia Euskal Herrian bideratzeko lau kapitulu oinarritzkoak: Teologia horren premia eta bideragarritasuna Euskal Herrian; Euskal Herria, leku teologikoa; hemen landu beharreko askapen-teologiaren subjektu historikoa; Euskal Herrian egiteko askapen-teologiaren helburuak eta bideak.

Orain dela hamar urteko egoera hartara itzuliz, **Jaunaren Deiak** hurrengo zenbakian X. Basurkoren idazlan bat argitaratu zuen, **Teologia Kontzilioandoan** izenpean. Bertako V. partean "Hego Amerikako askapen teologia" azaltzen du autoreak; VI. parteari, berriz, titulu hauxe eman zion Basurkok: **Liberazio teologia, teologia beltza eta kultur teologia**. Bertan jartzen du eztabaiden lehen aipaturiko nere idazlana ere, batez ere "kultur teologia" kontzeptua astinduz.

Urte t'erdi pasa ondoren, arazoari berriro heltzeko aukera izan nuen, **Jaunaren Deia** aldizkari berean (1977, 59-60-61 zenbakiak, 99-114 orrialdeak). "Euskal teologia" lantzeko "Kultur teologiaren" eta "askapen-teologiaren" arteko hurbiltasuna eta lotura aztertu nuen bertan.

Urte haietan beste eztabida batzu ere gertatu ziren "Euskal teologiaren" inguruan, **Anaitasuna** eta **Goiz Argi** aldizkarietan.

### Hiru hitz behinen

Guzti hori aipatu beharrezkoa iruditu zait: batetik, Felixen bibliografian kanpora gelditu delako -euskal aldizkarietan eta euskaraz argitaratzearen zoritxarra eta muga seguruenik-; bestetik, eta batez ere, Felixek gogoetarako ematen dituen zenbait punturekin oso lotuta daudelako eztabaida hartako kontzeptu batzu.

Hemen ez dago noski horietako baikoitza sakontzerik; baina aipatu eta nabarmendu behintzat egin nahi nituzke. Gerora zabalago azalduz eta zehaztuz joan beharko dugu.

Lehen kontzeptu **herria** da. Felix Placer-en idazlanaren muineko hitza da bera. Baina harritzekoa baldin bada ere, hortxe agertzen dira zalantzarik handienak nonbait: "Hay que reconocer que no es fácil determinar, con la precisión que requiere el discurso teológico, el concepto de Pueblo y sus características y pertenencia teológicas" dio, beldurrez edo, bere idazlanaren III. partean; eta zalantza horien aitzaki gisa, **Concilium** aldizkaria (196. zenbakia, 1984 aipatzen du. Beheraxeago dio oraindik Felixek: "Es normal que las anteriores afirmaciones sobre el sujeto histórico de referencia susciten dudas y críticas. Es necesaria una mayor matización y profundización. Hay que continuar esta investigación teológica...".



Paragrafo horiek irakurri ondoren **Concilium** aldizkariara jo dut. Zenbaki monografikoa da: "La Iglesia popular. Entre el temor y la esperanza". Bertan artikulua bat dago P. Ribeiro de Oliveira-rena: "¿Qué significa analíticamente pueblo?". Iruditzen zaidanez, irakurketa sakon eta kritiko bat merezi du artikulua horrek. Ez dut hemen egitekoa; baina neure funtsezko harridura eta hasierako ez adostasuna agertu behar dut artikulua horretako bigarren parrafoarekin. Honela dio artikulugileak: "Para la antropología cultural, "pueblo" significa lo mismo que nación o etnia, es decir, una población definida por su pertenencia a una misma cultura. Evidentemente, en este sentido la categoría "pueblo" no interesa a la teología, ya que carecería de sentido definir a la Iglesia como un pueblo culturalmente distinto de los demás". Barka, baina arinkeria butsa iruditzen zait antropologiaren "kultura" kontzeptua teologiatik kanpora uztea, besterik gabe; neretzat ez da inola ere "nabaria". Ematen duen arrazoiak ez dut uste inolako zentzurik duenik. Nola esplikatu behar du autoreak, besteren artean, **Eliza partikularra**, errealitate teologiko gisa?

Horrelako esaldietatik ote datoz Felix Placer-en ohar beldurti horiek? Goazen orduan **herria** kontzeptua alderdi guztietatik sakontzera, baina

beldurrik gabe. Euskal Herriako askapen-teologiaren funts-funtsezko kontzeptua daukagu hortxe.

Beste kontzeptu oinarritzkoa, askapen-teologia Herri honetan egiteko, **Kultura** dugu. Felix Placer-en idazlanaren ez dago horren analisirik; Euskal Herriaren berezitasuna azaltzean aipatzen da horren zapalkuntza kulturazkoa eta hizkuntzazkoa, baita: horren ahalegina bere nortasuna brreskuratzeko ere. Garbi da, herria kontzeptua bezala, kultura kontzeptua ere adiera anitzekoa dela, eta sarritan nahasgarria. Baina Askapen-teologiari dagokio, hasteko, bere baliabide kontzeptualen garbiketa egitea. Nere ustez, kultura barru-barrutik dago askatasunarekin eta askapenarekin

lotuta; eta horrexegatik uste dut, kultur teologia gure Herrian egiteko askapen-teologiaren beste izen bat dela: hementxe askapen-teologiari bere funtsezko epizifikotasuna emengo diona.

Azkenik, **hizkuntza** kontzeptua aipatu nahi dut. Placer-ek behin aipatzen duela uste dut Herri honen hizkuntza: euskara. Hala ere, uste izatekoa da, Eus Euskal Herriaren alderdi kulturazkoa aipatzen duenean, horren barruan sartzen duela hizkuntza ere: Herri honek bere askapen-bidean duen hizkuntzaren arazoa, euskararen berreskurapenaren arazoa, alegia. Dena dela, nere ustez, Euskal Herrian egingo den askapen-teologiak gogoeta askozaz sakonagoa behar du egin hizkuntzari buruz: euskararen ordezkapen-prizesuari eta horren berreskurapen-bideari buruz. Askapen-teologiaren abiapuntuan bertan daukagu, batetik, arazo hori; eta bestetik, Euskal Herriako askapen-teologiaren bideak aipatzean, ezin da inola ere ahan-tzi euskararen berreskurapen-bide horixe egin behar duela teologiak ere.

Hiru aztergai aipatu ditu: Herria - Kultura - Hizkuntza. Oso garrantziko iruditzen zait horiek argituz joatea, Herri hontan askapen-teologia egoki ipini eta bideratuko baldin badugu.

PAULO AGIRREBALTZATEGI